

ESPIRITUZKO BIZIERA E. STEINEN IKUSPEGIZ

Honako laburpen honetan Edith Stein-ek nola ulertzen duen espirituzko biziera aditzera ematen saiatuko gara. (Lan hau egiterakoan, Francisco Javier Sancho Fermín karmeldarrak idatzitako *Edith Stein, modelo y maestra*, Burgos 1997, erabili izan dugu).

Lehen eta behin, espirituzko biziera, gizakiari, arima-espirituz eta, baita ere, gorputzez osotutako batasuna den adinean, dagokiola esan beharra dugu. Arimaren eginkizunetariko bat gorputza "espiritualtzea" zela esan ohi zen. Baietzapen hau garrantzi handiko zerbait da, azken batean, Edith Steinek aditzera eman nahi duena, gizakiak espirituzko biziera izateko duen ahala nahiz, ondorioz, biziera hori izatea bera, bere baitan dagoen zerbait, bere izaerari dagokion zerbait dela baita. Beraren esku dago, bada, burutzea eta, zer esanik ez, ezingo du oso-osoa eta azken adieran garatu, Jainkoaren graziak, Espiritu Santuak esku hartu gabe. Ikuspegi honek bidezkotzen du, neurri handi batean, Steinen doktrinaren argipean, gizaki ateoarengan nahiz sinesgabearengan "espirituzko biziera" izateaz hitz egin ahal izatea.

"Espirituzko biziera" da, hain zuzen ere, gizakia bere baitatik ateratzeko, eta bere barrua irekitzeko gai egiten duena eta ondorioz, bilatzera, hartzera, bere burua eskaintzera bultzatzen duen jarrerara daramana. Beraz, beraren helbururantz eramaten duen garapen eta bilakaerazko jardunbidea da. Egin-eginean

ere, bere barnetasunean "zer den zerik espiritualena" bere izaeran aurkitzera daraman helmuga. Espirituzko biziera, lehenunean, nahitaez norberaren burua ezagutzera (ezinbesteko zera baita norberearen bokazioa ezagutu eta burutzeko), eta "norberaren etxean" eta norberaren "askatasunarekin" bat sentitzen den gunera bertara daraman barneratze bidea da. Edith Steinentzat arimaren gunea, askatasunaren gunea da, eta askatasunean gauzatu daiteke Jainkoarekiko maitasuneko bategitea.

Ondorioz, gizakiaren espirituzko maitasunak, elkartu eta nahastu egiten diren bi helburu ditu, pertsonaren espirituzko garapena osotasuna lortzeko ezinbesteko zera bihurtzen dutelarik. Bi helburu horiek honako hauek dira: beraren "esentzia eta bokazioa" pertsonarengan idatzitako Jainkoaren gurari gisa aurkitu, eta "Jainkoarekin bat egitea". Hiru dira, hain zuzen ere, Edith Steinek funtsezkotzat eta espirituzko biziera garatze-ko oinarritzotzat jotzen dituen elementuak:

- Gizaki barnekoia, gizaki askea.
- Espirituzko heldutasuna, norberaren banakotasunaren garapena.
- Espirituzko gizakia, haragi egindako gizakia.

a. Gizaki barnekoia = gizaki askea

Esakune honek, Steinek arimaren gunea askatasunaren gunea dela esatean adierazten duen ikuspegian ditu sustraiak. Askatasuna eta barnekotasuna gizakiaren espirituzko izaeran, beraren bizieran estu-estu bat eginda diharduten bi errealitate dira. Askatasunaren osotasuna lortu nahi duenak, nahitaez beraren gunea lortu beharra du, hau da, barnera bildu beharra. Norberaren baitara biltzea, ezagutzeko egintza pertsonala, espirituzko biziera da; hain zuzen, norberaren izateaz jabetzeko barnea aurkitzea. Ezaguera hau, gizaki barnekoi bihurtze hau, ezinbesteko zera da norberaren askatasunaren gunean kokatzeko, beraren azken xedea eragozpenik handienak "gure bai-

tan bertan direla" jakinik "Espirituari eragozpenik gabe jarraitzea" baita.

Gizaki baten askatasuna, mugatua izateak baldintzatutako zerbait bada ere, beraren nortasunaren zer berezia da, eta funtsezko eragina du beraren hazkundean, "askatasuna ukatzea, izateko aukera, hain zuzen, pertsona izatekoa gutxitzea" baita; eta "askatasunaren trukean eskaintzen duenak eta eskainitakoaren xedeak" erabakitzen dute pertsonaren destinoa. Gaiaren sakontasuna aditzera ematen diguten baieztapenak dira. Bestalde, begibistako zera da, norberaren gaineko askatasuna norberaren burua ezagutzen den adinean lortzen dela.

"Sakontasunean bilduta bizi denak, maila berean jasoten dituz zer txikiak ere unitate nagusien barruan; halakoen garrantzia era zuzenean baloratu, eta bere jokaera era egokian zuzendu ahal duen bakarra da. Bertan bakarrik bideratzen da arima, ezagutza osorantz eta izaeraren hobekuntzarantz".

Egin-eginean ere, barnetasunean bakarrik jasoten da "arimaren esentzia".

Gizaki barnekoiak, bere gunean bizi den adinean, Jainkoa aurkitzeko ahala eskuratzen du. Hemendik lortu ahal da bakarrik benetako elkargunea, batez ere bi arrazoiengatik. Lehena, -Edith Steinek tradizio teresiarretik dihardu- Jainkoak bere bizilekua arimaren erdian jarri duelako. Bigarrena, gizakia bere barnetasunik sakonenean bakarrik delako askea, eta Jainkoarekin elkartzeak, maitasunaren egintza den adinean, gizakiak eman dezakeen erantzunik askeena eskatzen duelako. Egiatan, egintza honetan datza bere guraria Jainkoari askatasun osoz eskaini nahi dion gizakiaren santutasunaren neurria. Horren ondorio bezala dio Edith Steinek, askatasunaren gune honetan soilki izan daitekeela Jainkoarekin bat egiten duen maitasuneko batasun mistikoa. Arimaren gunean kokatzeak, oster, norbera eta Jainkoa hobekiago ezagutzea dakar.

"Maitasunaren izaerarik barnekoiena" lortzaren ondorioz Jainkoaren esku jartze hau da, sakonean, gizakiak egin deza-

keen egintzarik askeena, "ez delako zirrara sakabanatu baten ondorioa, norberaren, pertsonaren berberaren izatearen osotasuna" baino; azken batean, "maitasuna egon dagoen zerik askeena" delako.

"Norberaren burua Jainkoari eskaintzea, era berean, maitatua den Jainkoaren baietzari eta kreazio osoari, hau da, Jankoarekin bat eginiko edozein espirituzko izakiri eginiko dohaina da".

Baina, zer dela eta Jainkorekiko maitasunezko bategite hau? Hain zuzen ere, arima jainkotasunaren hirutasun-bizierarekin bategiteak arimaren espirituzko natura, hau da, beraren izate pertsonala eta espirituala dakarrelako. Ondorioz, amaitzeko, gizakiak bere izaera barnetasunean aurkitzen duela baieztatu daiteke; eta ezagutuz, askatasun osozko egintzan, beraren izaera osoari esangura ematen dionaren esku jarritz burutzea bilatzen duela.

b. Espirituzko heldutasuna = banakotasunaren garapena

"Honela, gizabanakoaren arima, "bakarra" izateko duen era honetan, ez da dagoeneko hutsala; ez du helburu bakartzat bere barnean, aldi batean izaera berezia agertzea, ezta iraupen hori gizabanakoaren bizitzatik kanpo jagoteko asmoz ondorengoei helaraztea ere; gizabanakoaren arima bakoitza betiko bizitzarako sortua izan da, horrek Jainkoaren irudia gizabanakoari dagokion era berezian irudikatu beharra ulertarazten duelarik.

Gai honi, pertsonaren espirituzko biziera osoaren bilakabidean oinarritzko zertzat hartuz, banakotasunari ematen dion garrantzi handia agerten duen Edith Steinen aipamen bat eginenez eman nahi izan diot hasiera. Ez da Jainkoarekin bat egiteko bokazioaren gehigarria, beraren funtsezko zerbait baino. Zuzen-zuzenean Jainkoaren guraria betetzeak aditzera ematen duenarekin lotura duen zera da. Ideia hau hainbat argiago adierazia aurki dezakegu hurrengo pasarte honetan:

"Lurreko bizitza azkenera heldu, eta iraungikorra zena desagertu dadinean, orduan giza-arima bakoitzak "ezagutua den adinean" ezagutuko du bere burua, hau da, Jainkoaren aurrean den bezala: hots, Jainkoak sortzean egin duen bezala, hark oso-osoan banakoaren izaera duela sortzean eman dion xedea, eta berak, natura eta graziari dagokienean, lortu izan duen izate-maila, honi bere erabaki askeen bidez lortua erantsi behar zaiolarik."

Honetatik lehen ondorioak atera ditzakegu: espirituzko heldutasuna, edozein gizakik Jainkoarekin bat egiteko duen bokazioa izateaz gainera, askatasun pertsonalean eta Jainkoak markatu duen "bereztasunean" gauzatu beharko da; hau da, eman-kor bihurtu behar ditu hartutako "dohainak". Guzti honek hainbat ondorio sortzen ditu kristau-bizitzako sektore guztietan: hezkuntzan zein prestakuntzan, elizako talde eta elkarten barruan. Edith Steinek gizakiaren bokazioari funtsezkoa zaiion zera ez dela bakarrik Jainkoarekin bat egite horretara mugatzen, aitzitik egiteko era bera ere gizakiarengan dagoen Jainkoaren irudia dela eman nahi digu aditzera. Horrela, bada, Jainkoak pertsona bakoitzarentzat duen guraria aurkitu, egin eta betetzen laguntzea, "banakotasuna" jardunean jartzean datza:

Banakotasuna kontuan izatea, edozein heziketa zuzenen eskakizuna da".

"... gizatasuna bera bezala garatu behar den balioa da..."

Banakotasuna ez da gizaki bakoitzaren jardueran markatzen duen izaera pertsonalaren ezaugarri hutsa. "Jainkoaren zigilu" gisa eratu eta hartzean banakakoaren "karisma pertsonal" bihurtzen da. Hortik sortzen da ezagutu eta bizibide egiteko barneko premiatasuna zein beharrezana. Norberaren banakotasuna, eta, beraz, norberaren bokazioa ezagutzea (lehenago esan duguna gogoan izanik) soilki benetako espirituzko biziera izanik lor daiteke, hau da, pertsonak lortutako barnekotasun mailak zuzen-zuzenean baldintzatuta dago. Banakotasunaren esentzia eta existentziaren balioa beraren jatorrian dat-

za, hots, gizakiarentzat eta gizateriarentzat "Jainkoaren dohaina" izatean.

"Arima bakoitzari zigilu berezia jarri dion Jainkoak, bakoitza aparteko eta berezko eran bat egiten berarekin. Jaunak, gizakien bihotzak barruan jaso ezin duten Jainkozko bizieraren oparotasunetik ezkutuko zer berezia ematen dio bakoitzari, beronen bitartez bide ulertezina eskaintzen diola".

Horrela, era berean, esan dezakegu gizaki banakoaren bo-kazioa, aurrekoaz gainera, barnean duen Jainkoaren irudia pertsonalki era guztiz berezian irudikatzea ere badela. Giza pertsonarengan beraren banakotasunak duen guneko leku honek, hainbatean laguntza ematen digu funtsezko balio gisa ulertzeko:

"Gizakiaren izaerari dagokio, banakako bakoitzak eta gizateria osoak, beraien naturaren arabera aldi zehatzaren barruko garapenean ezarria duten harakoa lortzea, garapen hori bakoitzaren lankidetasun askeari eta guztien lankidetzari loturik dagoelarik."

Bestalde, beraren garapena pertsonari zein bizi deneko giza elkarteri lotuta agertzeak agerian jartzen du giza erantzunkidetasuna, benetako jarduera burutzeko beharrezko faktore gisa. Beste behin esan beharra dago gizakiaren bikaintasuna Jainkoaren gurariarekin bat etortzean datzala. Gurari hori ez da, Steinek ulertzen duen ikuspegiz, zer abstraktua, gizakiaren barnean, beraren banakotasunean Jainkoaren dohain gisa taxututa dagoen zerbait baino. Behar bada, itaun daiteke nola izan daitezkeen pertsonak beste banakako karismak. Oso erantzun erraza eskaintzen du Edith Steinek: Jainkoaren maitasuna hain handia, hain mugagabea izanik, beti izaten ditu agerian jartzeko era berriak. Jainkoaren dohain hau zer abstraktu gisa agertzen ez bada ere, ez da inolaz ere ahaztu behar, egin-eginean ere oinarriak Jainkoarengan dituelako, beti ezkutuko zerbait gisa irauten duela.

Beste urrats bat aurrerantz eginez, banakotasuna "izaera" gisa gauzatzea "berez dena izatera heltzea" dela ikusten dugu. Adiera honetan Edith Steinek san Pauloren ildotik dihardu. Gizakiak bere izatea eguneratu egin behar du, hots, "oso-osoan pertsona izan, bere bidetik ibili eta bere berezko eginkizuna bete". Espirituzko heldutasuna banakotasun pertsonala ezagutu eta gauzatzen den adinean, eta halakoan bakarrik lortzen da. Bokazio hau azkeneraino eramateak Jainkoaren guraria betetzeko dinamikan, eta, beraz, Berarekin batasuneko harremanetan jardutea eskatzen du. Bestalde, Jainkoaren guraria gizakiarengan betetzea -nahiz eta ez izan hartan soilki- honek bere esentzian bakarrik aurkitzen duen "karisma pertsonala" burutzea bada ere, Jainkoaren gurari hori gizakiak bere izatearen osotasuna lortzean datza.

c. Espirituzko gizakia = gizaki haragi egina

Edith Steinen burubidean oso argi ageri den ikuspegi bat da, agerian horretaz zer askorik esaten ez badu ere. Hara, bada, eragozpen handirik gabe atera daiteke inplizituki ondorio hori espritu, arima eta gorputzez osoturiko batasuna den gizakiari buruz duen ikuspegia aztertuz.

Gizakia haragi egindako zer gisa aurkezten zaigu. Beraren gorputza ez da kartzela ezta basamortua ere, "erabiltzen" ikasi behar duen balio eta baliabide edo bitartekoa baino. Beraren gorputz-bizierak, haragi egina izateak, harremanetan jartzen du partaide deneko eta bere biziera egin behar dueneko munduarekin. Harreman honetatik, lehen ondorio gisa, biziarenganako begiruneak sortu behar du, bizi direnetik bakarrik sortzen baitira bizi direnak. Teologia alorrean arrazoi sakona ageri da, sortutako zer guztiek Jainko bakar eta hirukoitzaren "hirutasunezko bizieraren hedapena", Hitzaren irudia diren adinean.

Gizakia, haragi eginiko izakia den adinean, ekologismora deitua izan da: hau da, kreazio osoa maitatu, errespetatu eta jagotera, "gizaki guztien salbatzailea" izatera, bere espirituzko

bizierak ere sortutako zer guztiak hartzen dituelako bere baitan. Bera da, hainbatean, naturaren jardunbide egokiaren erantzulea. Gizakiaren biziera, esan dugun legez, beraren iza-tearen arabera, bi norabide, hots, Jainkoa eta sortutako izadia dituela burutzen da. Beraren izaera materia-gorputzezkoa da, eta beraren arimaren izaera gorputzean diharduen izaera modura defitzen, hau da, inguru zehatz batean eta historia barruko une zehatz batean garatzen den bizitza modura. Kide delarik partaide deneko gizaterian eta gizateriarekin garatzen da. Hor aurkitzen du bere harremanen gunea nahiz bere bokazio berezia garatzen dueneko eremua.

Beraren "haragi egindako izaerak", Hitza eta Erredentorea den adinean, gizakiaren erredua eta azken helburua den Kristorengan aurkitzen du osozko esangura. Kristok giza natura bere gain hartuz, hark duen balioaren neurri egokia eman du. Une berean salbatzailea eta salbatu beharreko errealitatea da. Jesukristo haragi egindako izakiaren arketipoa da. Berarengan ageri eta gauzatzen da, era berean, giza erantzunkidetasuna, gizateriaren, Elizaren buru egiten den unean hasita.

Gizakiaren haragizkotasuna onartzea benetako espiritualtasunerako aurretiazko baldintza da. Honela, gizakiaren izaera gaizki ulertzeak dakartzan okerrak aldentzen dira.

Jainkozkoak eta gizakizkoak elkarri argitasuna ematen diote, eta bien batasunetik abiatuta lortu ahal izango da soilik kristau bizitzaren garapen osorako oinarri sendoa izango dena egokiro ulertzea.

Patxi Uribarren